



## **IKASGELAKO ERABILTZAILEAK**

### **ARAUTEGIA**

#### **Ordutegia:**

- Egunero, 7:00etatik 21:00etara. Asteburu, jai egun eta zubietan irekita egongo da.

#### **Sarrera txartelari buruz:**

- Ikasgelako erabiltzaile izateko, ezinbesteko baldintza izango da erabiltzaileek 18 urte beteak izatea edota dagokion urte naturalaren barruan betetzea. Horretarako, NAN dokumentua erakutsi beharko du.
- Txartela liburutegian egiten da (Salto enpresarekin dago jarrita ateen sistema). Ateak soilik txartelarekin ireki daitezke.
- Ikasgelako txartela lortzeko erabiltzaileak 5 euroko tasa ordaindu behar du. Horretaz gain, erabiltzaileen inprimakia eta argazki bat ekarri behar ditu.
- Txartela pertsonala eta besterenezina da.
- Txartela ofizioz iraungi egingo da 2 urtez erabiltzen ez bada eta ondoren, zerbitzua berritzeko, txartela berria atera beharko da, dagokion tasa ordainduz. Txartela berritzearen beharra lapurretaren ondorioz bada, ez da tasa berria ordaindu behar izango baldin eta jarritako salaketaren egiaztagiria aurkezten bada.

#### **Ikasgelaren erabilpenari buruz:**

- Ikasgelako erabiltzaileen betebeharrak orokorrak errespetatu.
- Ikasgelatik ateratzen den azken pertsonak argiak itzali eta leihoak itxi, mesedez.
- Mahai eta aulkiak gehienez ere 30 minutuz gorde ahal izango dira erabiltzailea bertan ez dagoela. Inola ere ezingo da tokirik gorde eguerditik arratsaldera edo egun batetik bestera.

**Arau hauek guztiak betetzen ez badira, Udalak ahalmena izango du sarrera baimena baliogabetzeko eta behar diren neurriak hartzeko.**